

*Hotzaldi
Martxoko azken ostirala*



Caritas
Gipuzkoa



Martxoko azken ostirala. Argitsu irten da eguna. Eguzkiak esperantza berarekin ekarriko balu bezala...Hala bedi. Gaua lasaia izan da Hotzaldin, hots, CARITAS GIPUZKOAREN gaueko harrera zentroan; ohi den bezala. Egoitzako ohe guztiek badute bertan nork lo egin. Gaurtik aurrera ordea...

Eguneko lehen orduak urduri samar doaz Hotzaldin. Egoitzak aldaketa batzuk sumatuko ditu datozen ordutan. Kale gorriari aurre egiteko, aterpean, atsedean hartzeko egoitzako partaide askok, ospa egingo dute. Baina... Nora? Kalera berriro ere? Zer dela eta?

Ez!!! Ez da larria. Edota larri bihurtu daitekeen egoera bati irtenbidea aurkitzeko pauso da. Coronavirusari aurre egiteko, bertako hogeit hamar lagun beste egoitza batera eramango dituzte, besteak beste, jende pilaketa arindu eta, sortu daitezkeen kutsatzei aurre egiteko.





Jendea urduri dago. “Norabaitera garamatzate baina...”, diote kezkatu. Hotzaldiko hezitzaileek “zaudete lasai!” esaten diete behin eta berriz. “Beste leku batera zoazte baina oso ondo zainduak egongo zarete”. Beraiek, ordea, zalantzak dituzte: “Orain arte inor gutxi gogoratu da nitaz, eta orain, beste egoitza batera?”.

Joan behar duten guztiek, prest dituzte euren motxila eta poltsak; ohe gainean edo inguruan utzi dituzte. Eta joateko deiaren zain, solasaldiak hasten dira batekin eta bestearekin. “Nongoa zara?”. “Zenbat denbora daramazu Euskal Herrian?”... Baten eta bestearen ibilbide edo joan etorriak trukutzen ditugu. Tartean, bostekoak. Txantxak.

Txirrin hotsa! “Hemen dira!”, esan du batek. Egoitza berrira eramango dituzten kotxe eta furgonetak heldu dira. Hotzaldiko hezitzaileek, garraiatuko dituztenekin tramite burokratikoak adostu ondoren, zerrenda bateko lehen izenak oihukatzen dira. Izena entzun orduko, poltsaren bila joan, eta irteerako aterantz abiatzen dira bata bestearen atzetik. Arin. Presaka ibiliko balira bezala. Irribarreek kezka irentsi dute. Baikortasuna da nagusi. Agurrak pilatzen dira: “Gero arte!”, “Ondo ibili!”... Bata bestearen atzetik, Gizarte Larrialdietako partaideen laguntzarekin, kotxe edo furgonetan igotzen dira beharrezko neurri eta tartek errespetatuz. Jarri dira martxan motorrak. Kotxe lasterketa baten hasiera bailitzan, bata bestearen atzetik irteten hasi dira. Badoaz... Eta tartean, bozina-agur hotsak, eta Hotzaldin geratzen direnen txalo, oihu eta bibak. Ostiral goiz honetan, hiru aldiz errepikatuko da “bidaia” hau.

Badoaz orduak aurrera, eta goizari, eguerdiak hartu dio txanda. Zer ordu da?

“Bazkaltzekoa!, dio batek. Antolaketa adostu ondoren otorduaren txanda da. Sabela alaitzekoa. Gustura jan dute. Besteak beste, arraina, yogurra... Denok gustura. Bazkal-ostea. Atsedena ordua...”





Atsedenarekin batera, otoitzaren garaia iritsi da. "Parte hartu al dezakegu?", galdetu du Hotzaldiko hezitzaile batek. "Bai, noski", erantzun diote. Oinetakoak alboratu eta mantatxoan gainean errezoaren errituak jarraitu ditugu. Amaitu orduko, otoitzaren nondik norakoaz jardun dugu; zalantzak argitzen. "Eskerrik asko", luzatu dute. "Zuei!", esan dute hezitzaileek trukean.

Jada, arratsaldea da. Kafe baten bueltan hitz egiten hasi gara berriz gai ezberdinez... Gustura gaude. Horrela 'jantziko' da egoitza auskalo zenbat egunez.

Hotzaldi pertsonaz arindu da. Irten direnak, wassapez, 'etxe berrira' iritsi eta ondo daudela esanez idatzi dute. Hezitzailek pozik daude joandakoak gustura daudelako. Ez da gutxi! Poztasun horrek, asko iraun dezala... Baita dena "bere horretara" itzultzen denean.